

GIZARTEA

**Lasarte-Oriako  
Protokolo  
Komunitarioa  
martxan jarri dute / 2**

# txintxarri

KULTURA

**'Karabista' fanzinea  
aurkeztu dute Kriseilu  
asanbladako kideek  
Jalgi kafe antzokian / 6**



Jalgi kafe antzokian aurkeztu dituzte euskararen aldeko ekimen erraldoia dinamizatuko duten zortzikoteko kideak, baita leloa, logotipoa eta abestietako bat ere. TXINTXARRI

ELKARRIZKETA

**"Errege Kopako aste  
hori eromena izan  
zen; beno, hilabete  
hori guztia" / 12-13**  
Jon Martin Vicente  
Realeko atzelaria



TXINTXARRI

GIZARTEA

**Ekainaren 2tik 7ra  
aurrera eramango  
dituzte Zabaleta  
aizoko festak; Teresa  
Sorgiña jaistear da / 5**

KULTURA

**Iazko doinuei  
jarraituta, giro  
ederrean ospatu dute  
II. Txaranga Eguna  
herrian barrena / 7**

KIROLA

**Lasarte-Oriako atletak  
Euskadiko zein  
Gipuzkoako lehietan  
lehen postuetan izan  
dira / 10**

**600 85 75 86**  
www.electricidadarregui.com  
Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

**Etixerako  
haizagailu berriak!**

- Zutikakoak
- Klimatizagailuak
- Zapaia
- argi-haizagailuak



Herriko eragile ugarien artean landu dute kolektiboki entzun eta erantzuteko protokolo komunitarioa. Horien ordezkariak aurkeztu dute egitasmoa Mirentxuko trinkete kantxaren alboan. TXINTXARRI

## GIZARTEA

# Erasoei erantzutetik harago joan nahi dute

Lasarte-Oriako eragile ugari protokolo komunitarioa prestatu dute, lankidetzan. Erabat bukatuta ez badago ere, "esanguratsua" eta "ilusioz betetzen" dituen dela adierazi dute. Datorren ikasturtean sarea handitu eta lanean jarraitzeko konpromisoa hartu dute

### Txintxarri

LGTBIQ+ kolektiboa osatzen duten pertsonen nazioarteko harrotasunaren eguna da ekainaren 28a. Urtero-urtero, mundu osoan zehar egiten dituzte manifestazioak eta ekitaldiak, baita Lasarte-Orian ere. Aurreko urteko agerraldian, gure udalerriko Transmaribibollo Kolektiboko kideek saretzeko deia luzatu zuten, eskubideen defentsan saretzeko. Ildo horretatik, ikasturte hasieran prozesua jarri zuten martxan Hiruki Larroxa kooperatiboko kideen laguntzarekin eta eragile ugari lan egin dute horretan: Transmaribibollo Kolektiboa bera, Bizipoza, Ernai, Landaberriko guraso elkarteak, GKS, Mugimendu feminista, Ostadar SKT, Sorgin Jaiak, Ttakun Kultur Elkarteak eta Zabaleta Auzolan. "Beste hainbatek ezin izan dute prozesuan parte hartu baina etorkizunean batzeko asmoa adierazi dute", azaldu dute Mirentxun egindako agerraldian. Egindakoaren xehetasunak emateaz gain, *Kolektiboki entzun eta erantzun! Lasarte-Oriako protokolo komunitarioa* lelodun afixa erakutsi

dute. Jarraitu aurretik eskerrak eman dizkiete Hiruki Larroxa-k lagunei, "idea eta sentsibilitate ezberdinak entzun eta prozesua bideratzeko izandako gaitasunagatik".

"Azken urteetan Transmaribibollo Kolektiboak jaso izan dituen erasoei erantzutean izandako zalantzek" motibatu dituzte aipatu prozesua martxan jartzera. "Zorionez, elkarrekin lanean hastean ikuspegia hedatu eta tresna zabalago bat lantzen hasi gara", azaldu dute. Izan ere, mahaiaren bueltan eser diren eragile guztietako kideek izan dute mota ezberdinetako erasoen berri euren eremuetan: aisialdia, kirola, festak, eta abar. "Guztiok izan ditugu zalantzak horiei nola erantzun erabakitzerako garaian".

Lan egin bitartean ondorioak atera dituzte, besteak beste, hauxe: "baliotsua" dela edozein motatako erasoen aurrean, hori pairatu duenak "erreferentziako kanal garbiak" izatea eta eragileek koordinatuta lan egitea. "Baina ez hori bakarrik: erasotua izan denaren anonimotasuna zaindu nahi dugu, prozesuan akonpainatu nahi

diogu eta, bere gogoaren arabera, guztiok batera erantzun nahi dugu, koherenteki eta koordinatuki".

### Festa garairako protokoloa

Egindakoaren emaitza oraindik amaituta ez badago ere, ilusioz eman dute horren berri: ate joka ditugun festa garairako behin-behineko protokoloa prestatu dute. Horri lotuta, "konpromiso ugari" hartu dituzte: antena lana egitea, eta, edozein erasoaren berri izatekotan, martxan jarri duten kanalaren bidez komunikatzea; erasotua izan denari eta ingurukoei erantzutea; eragileetako ordezkariak askatasunez elkartu eta erantzuna adostea, betiere erasoa pairatu duenaren nahia errespetatuta; erasoa gauzatu duenari edo dutenei erantzutea; babes profesionala eskaintzea; eta herrian

**Elkarrekin lanean hasi direnean ikuspegia ireki eta "tresna zabalago bat" landu dute**

gertatutako erasoei jarraipena egitea.

Norabide horretan, Zabaletako festetarako eta San Pedro Jaietarako honako kanalak izango dituzte martxan, eguneko 24 ordutan, eraso bat jasan edo ikusi duen edonor eragileekin kontaktuan jar dadin: 633 34 42 84 telefono zenbakia; [emankontulasarteoria@gmail.com](mailto:emankontulasarteoria@gmail.com) helbide elektronikoa; eta [@emankontulasarteoria](https://www.instagram.com/emankontulasarteoria) kontua (Instagram sare sozialean).

Arestian aipatutako konpromisoez gain, lankidetzan aritu diren eragileek datorren ikasturtean prozesuarekin jarraitzea adostu dute. "Festa garaitik harago, protokoloa urte osoan martxan egotea da asmoetako bat. Horrez gain, erasoak gutxitzea edo desagertzea nahi dugu, noski. Horretarako, kontzientziatzea eta pedagogia jorratuko ditugu".

**Aurtengo festa garairako protokoloa urte osoan martxan egotea da eragileen asmoetako bat**

Sarea handitzeko asmoz eragile gehiagorengana joko dutela aurreratu dute. "Noski, parte hartzeko gogoia dutenak, jarraitzea gurekin harremanetan!".

## Harreman kanalak

Lasarte-Oriako Protokolo Komunitarioaren barruan eguneko 24 ordutan martxan egongo diren kanal hauek jarriko dituzte herritarren eskura, Zabaletako festetan nahiz San Pedro Jaietan:

### Telefono zenbakia

• 633 34 42 84 (deiak edo WhatsApp mezuak)

### Helbide elektronikoa

• [emankontulasarteoria@gmail.com](mailto:emankontulasarteoria@gmail.com)

### Instagram sare sozialetako kontua

• [@emankontulasarteoria](https://www.instagram.com/emankontulasarteoria)



Herritarren jakin-mina piztu zuen liburuen aurkezpen ekitaldiak. MAIDER GALARDI



Ezker-eskuin: Maider Galardi eta Mer Gomez, hizketan. MAIDER GALARDI

GIZARTEA

## Mer Gomez intersex aktibista eta bere obra ezagutu dute

Idazle salamankarrak bere lanetako bi aurkeztu ditu Antonio Mercero Aretoan: 'La rebelión de las hienas' eta 'Las hermafroditas del siglo XXI'. Liburu horiei buruzko azalpen xeheak eta hausnarketa orokorrakoak partekatu ditu

### Txintxarri

*La rebelión de las hienas* eta *Las hermafroditas del siglo XXI* liburuak aurkeztu zituen idazle salamankarrak Antonio Mercero aretoan, hilaren 21ean. Maider Galardi kazetari eta laguna izan zuen alboan aurkezpenean zehar. Intersexualitatean ardatzu zuen hitzaldia eta gai horrek zeharkatzen zituenei buruzko azalpen argiak eta zehatzak eman zituen. Jakin-mina piztu zuen LGTBIQ+fobiaren aurkako egunaren (hilak 17) eta harrotasunaren

nazioarteko egunaren (ekainak 28) harira antolatutako ekimenak eta bertaratu zirenek lepo bete zuten gunea.

*La rebelión de las hienas* (Bellaterra, 2022) eta *Las hermafroditas del siglo XXI* (Bellaterra, 2024) lanak aurkeztu zituen egileak. Idazlearen beraren bidaia autografikoari buruzko lana da aurrenekoa; 2016an jaso zuen intersex izatearen diagnostikoa eta hurrengo lau urteetako bidea jaso zuen liburu horretan, isiltasuna atzean utzi eta ezaugarri berberak

zituzen pertsonen bila hasi zen. Identitate kolektibo bat eraikitzeke asmoz, bere nahiz beste pertsona batzuen testigantzak jaso zituen.

Bigarren idazkia, berriz, bere doktore tesian (*Las hermafroditas del siglo XXI: de objetos del discurso a sujetos políticos. Soliloquios corporales y nuevos enunciados sobre la intersexualidad*) oinarrituta dago eta dibulgatiboagoa da. Pertsona intersexak medikuntzaren edo biologiaren aztergai edo patologia gisa tratatu izan dituzte,

medikuek erabakitzen zutelako zer operatu. Bada, Gomezek irauli egiten du jokabide hori, ezaugarri horiek dituzten pertsonak euren diskurtso propioaren jabe eta subjektu politiko bihurtuta.

Aipatutako lan horiei buruzko xehetasunak eta gogoeta orokorrakoak plazaratu zituen Gomezek, hala nola intersex gisa diagnostikatzen dituzten gorputzek pairatzen duten indarkeria biomedikoa edota gisa horretako gorputzek zein subjektibitateek ezbaian jartzen dutela genero binarismoa, hau da, gizarteak gizakiak sailkatzeko dituen bi kategoria zurrunik: gizon edo emakume izateko arketipo nagusiak. Horri lotuta "derrigorrezko heterosexualitate harago" begiratzeko proposamena egin zuen.

**"Derrigorrezko heterosexualitate harago" begiratzeko proposamena egin du Mer Gomezek**

### Egitarauko hurrengo jarduerak

Hauek izango dira LGTBIQ+fobiaren nahiz harrotasunaren nazioarteko egunaren harira antolatutako hurrengo ekimenak:

**Ekainaren 1etik 30era**  
• Udal Liburutegian, Gorputzak erakusketa.

**Ekainak 5, ostirala**  
• Kultur etxean, 18:30ean, Zinegoak Nazioarteko LGTBI Zinemaldiko lanak emango dituzte.

**Ekainak 9, asteartea**  
• Kultur etxean, 17:30ean, Danele Sarriguarte idazlearen *Beste zerbait* eleberriari ariko dira literatur txokoko kideak.

### ENTSEGUAK

#### EGUNAK

EKAINAK 2, 4, 9, 11, 16 eta 18

#### ORDUA

20:00ETATIK 21:00ETARA

#### LEKUA

Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero Oriarte Landaberri ikastetxeko estalkian.

## SORGIN DANTZA

2026/06/26



LASARTE-ORIA  
SAN PEDRO JAIK

## MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Udaberrian, presta ezazu azala udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratu dugu

ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea 2/g, Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45



## EKONOMIA

## Udaberria ospatu eta udalerriri bizitza eman diote Aterpeako merkatariak

Txu-txu trenaren eta Okendoko parrilla janaren bueltan ibili da jende gehien

### Lierni Apaolaza Urdanpileta

Ostirala (hilak 22) tailerrez gozatzeko eguna izan zen. Alde batetik, haurrentzako jarduera prestatu zuen Lilura liburu dendak. Marrazkiak margotu eta irudi horiekin txapak egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Ormazabal lore dendak, bestetik, *Landatu zure landarea* ariketa antolatu zuen. Horri esker, *tagete* izeneko lorak landatzeko aukera izan zuten. Bero handia egiten zuelarik, ohi baino jende gutxiago joan zen jarduera horietara. Dena den, giro ederrean gozatu zuten animatu zirenek.

Egun handia izan zen biharamuna, larunbata. Tradizioak tradizio, herriko zenbait kale zeharkatu zituen txu-txu trenak; erdigunekoak, batez ere, goizez eta arratsaldean. Goiz-goizetik egin ziren bertara igotzeko ilarrak, Jalgi taberna parean. La-sarteoriatar mordo batek bidaiatu zuen garraio bidean. Arratsaldean, parrilla jana egin zuten, Okendo plazan. Ganbaz eta txanpiñoiez eginiko mokadutxoak doakoa izan zen. Urdaira etxeko sagardoaz gozatzeko, aldiz, euro bat ordaindu behar zen basoa lortzeko. Gutzietan, herritar mordoak bildu zen enparantzan.

Zuzeneko musika emanaldiak ere aurrera eramane zizuten egun horretan: The Gu eta So-zerdotes aritu ziren Buenetxea kafetegi-tabernan, eta Arka taldea, aldiz, Ori Txiki tabernan. Establezimendu horretara eguerdi aldera joan zirenek mokadutxoak jan ahal izan zuten, gainera. Horren aurretik, Amali jolas dendan *Udaberri, lore berri* jardueran parte hartu zuten etxeko txikiak.

Ohiko legez, gogotik disfrutatzeko jarduerak izan da Aterpearen Udaberriko Festa aurten, baita bertako merkatariak ezagutzeko eta ospatzeko abagunea ere. Beste behin, udalerriri baten bizitzaren parte garrantzitsu eta ezinbestekoa dela erakutsi dute establezimenduetako jabe eta langileak.



Txu-txu trenaren bidaiatzeak eragiten duen zirrarak ez du adinik. TXINTXARRI



Haurrentzako tailerrak egin zituzten ostiralean zein larunbatean. TXINTXARRI



Pintxoak hartuta, sagardo bila joan ziren bi herritar hauek. TXINTXARRI

Arestikoan aipatutakoarekin batera, hilaren 21etik 23ra eskaintza bereziak egin zituzten Aterpeko bazkide ugariak. Bestalde, kanpainarekin bat egin dako establezimenduek zozketa txartelak banatuko dizkiete

erosketak eginiko bezeroei. Bost erosketak txartel zozkatuko dituzte guztira: 500 euroko bat eta 250 euroko lau. Txartel horiek kanpainako parte hartzaileen negozioetan erabili behar dira.

## KULTURA

## Pianoaren inguruan batu dira



TXINTXARRI

Pianoa eta instrumentu hori bikain jotzen duten hiru artista izan dira Danok Kide elkarteak antolatutako XX. Musika Topaketaren protagonistak: Jakes Txapartegi, Esther Barandiaran eta Iñaki Salvador. Txandaka aritu ziren tresna horren 88 teklak zapaltzen eta ikus-entzuleak gozarazten; elkarrekin ere jardun ziren, binaka edo hiruak. Piezak interpretatu aurretik kontakizun pertsonalak partekatu zituzten, hitzek ere tokia izan baitzuten ikuskizunean zehar.

## KULTURA

## 59. urteurrena ospatu dute



TXINTXARRI

59. urteurrena ospatzeko bazkaria egin zuen Palomo Linares Elkarteak hilaren 24an, Erribera kale azpialdean duen egoitzan. 60 bat lagun bildu ziren, haien artean, herriko alkate Agustin Valdivia. Urteroko ohiturari jarraituta, dastatzeko menu goxoa izan zuten. Giro ederrean ospatu zuten guztiek urtemuga.

## KULTURA

## Gustatzen zaiena egiten igaro dute igande goiza: dantzan

Goizean goiz esnatu, lagunekin elkartu eta dantzan aritu. Ez da plan hobirik. Hori ondo daki Ttakun KEren Plaza Dantza taldeak. Izan ere, hilero legez, dantza saioa aurrera eramane zuten hilaren 24an. Goizean aritu ziren, Mercero guneko ondoko plazatzon, itzaletan. Hamaiketako garaia alaitu zuten euren bizipozarekin.



TXINTXARRI



Gazte zein heldu, auzotar ugari aurkeztu dute aurtengo festetarako egitaraua. TXINTXARRI

## GIZARTEA

## Badatoz Zabaleta auzoko festak, badator Teresa Sorgiña

Ekainaren 2tik 7ra ospatuko dituzte haurren txupinazoarekin hasiko diren jaiak

## Txintxarri

Frontoi atzealdeko plazatxoan jarri dute jada txosna koloretsua, Zabaletako jaiak eta udara iristear diren seinale. Hilaren 26ko prentsaurrekoa egin bitartean irekitzeko eta edari freskoren bat edateko tentazioa izan zuten, termometroek 35 bat gradu markatzen zitzutelako antolatzaileek egitarauaren berri eman bitartean. Bada, ekainaren 2tik 7ra are gehiago berotuko da giroa auzoan barrena, batez ere, Teresa Sorgiña erratza hartuta jaisten denean Teresategi menditik. Ostiralean izango da hori. Horren aurretik eta ondoren adin tarte guztietako herritarrentzako ekimenak programatu dituzte, udalerriko establezimendu ugari eta udalaren laguntzarekin. Egitaraua, osorik, 15. orriko *Agenda* atalean jaso dugu.

Aipatu egun horietan festa giroa espero dute antolatzaileek. Edo nola ere, "edozein eraso edo indarkeria egoera" pairatzen dutenek 633 34 42 84 telefono zenbakira deitzeko aukera izango dutela jakinarazi dute. Herriko eragile ugari, Zabaleta Auzolan elkarteak barne, protokolo komunitarioa landu dute hilabeteotan eta eguneko 24 ordutarako arreta zerbitzu hori jarriko dute.

### Jarduera nabarmenenak

#### Ekainak 2, asteartea

- 18:00etan, haurren txupinazoa.

#### Ekainak 3, asteazkena

- 20:00etan, goxoraketak, buruhandiak eta festetako dantzak.

#### Ekainak 4, osteguna

- 18:00etatik 19:00etara, apar festa.
- 19:00etatik 20:30era, pintxo-potea.

#### Ekainak 5, ostirala

- 18:45ean, Teresa Sorgiñari ongietorria.
- 00:00etatik aurrera, Viafara eta Bele Raven taldeen kontzertuak.

#### Ekainak 6, larunbata

- 11:00etan, Xumela koruko eta Earra! bertso eskolako kideen kantu jira, auzoan barrena.
- 12:30ean, sagardo festa.
- 15:30ean, XVI. Mus Txapelketa, Jose Migel Aranzadiren omenez.
- 21:00etan, afari herrikoa.
- 00:00etatik aurrera, kontzertuak: Auskalo taldea, DJ Fantasia eta DJ Mangel.

#### Ekainak 7, igandea

- 10:30ean, patata tortilla txapelketa.
- 12:00etan, herri kirolak.
- 13:30ean, proba mistoa.
- 18:00etan, dantza gidatuak, Ttipika taldearen eskutik.
- 20:30ean, azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra.



Ezker-eskuin: Maite Iglesias, Agustin Valdivia eta Haritz Salaberria. TXINTXARRI

## EUSKARA

## Ekainaren 1ean irekiko dute udako udal txokoetan izena emateko epea

laz bezala, Ttakun Kultur Elkarteak kudeatuko du zerbitzua. Toki kopurua bikoiztu dute, 400 umek izango baitute lekua

## Txintxarri

"Udako udal txokoekin guztiok irabaziko dugulakoan gaude: familiek, erabiltzaileek, euskarak eta baita antolatzaileok ere, jakina". Agustin Valdivia alkaterearen hitzak dira, Lasarte-Oriako haurren udarako euskarazko aisialdia emateko zerbitzuaren aurkezpenean esandakoak. Lizitazioa Ttakun Kultur Elkarteak irabazi duela jakinarazi du; iaz hasitako bidearekin jarraituko du eragile horrek, beraz.

Udaleko Hezkuntza zinegotzi Maite Iglesiasek jakinarazi du bikoiztu egin dutela toki kopurua eta 400 umek izango dutela lekua. Bi txanda iragarri dituzte: aurrenekoa, uztailaren 1etik 30era; eta bigarrena, abuztuaren 3tik 28ra. Batean zein bestean bi ordutegi eman dituzte aukeran. Jangela zerbitzurik gabekoa izango da bat,

10:00etatik 13:00etara; bestea, aldiz, 10:00etatik 16:30era. Hala nahi dutenek Goiz Txoko zerbitzua ere izango dute 09:00etatik 10:00etara.

## Izen ematea, Gaztelekuan

Ekainaren 1etik 5era izango dute herritarrek izena emateko aukera, Gaztelekuan, goizez zein arratsalde: 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, hurrenez hurren. Hori zehaztuta, lasarteoriatarrek animatu dituzte zerbitzua erabiltzera.

Programazioari buruzko zeritzelada pare bat eman ditu Ttakun Keren kudeatzaile Haritz Salaberriak: "Beti bezala, ekimen atseginak eta dibertigarriak antolatuko ditugu. Hizkuntzari dagokionez, eskola eremutik kanpokoa den eta aisialdiarekin lotura duen euskarazko eskaintza indartuko dugu".

**LASARTE-ORIA 2026**  
**UDAKO UDAL TXOKOAK**  
 UZTAILA | ABUZTUA  
 1-30 3-28  
 10:00-13:00 | UDAL EREKIAK  
 9:00-10:00 | GOIZTXOKO  
 13:00-16:30 JANGELA  
 IZEN EMATEA  
 Aurrez aurrekoa Gaztelekuan  
 ekainaren 1etik 5era  
 9:30-13:00 | 16:00-18:00  
 udalekuirekiakttakun@gmail.com  
 628 55 91 26

## KULTURA

## 'Karabista' fanzine argitaratu berria aurkeztu dute Kriseilu asanbladako kideek

Artea "gizartea eraldatzeko tresna" dela aldarrikatu dute Jalgiko ekitaldian

### Lierni Apaolaza Urdanpileta

Adreilu mota bat da *Karabista*, berezia. Izan ere, agerian gertatzeko asmoz jartzen da. Langileen auzoko paisaietako elementuetakoa ere bada. Hala izendatu dute azken hilabeteetan eraikitako euren lehen fanzinea Kriseilu Lasarte-Oriako Gazte Langileen Asanbladako kideek. Jalgin aurkeztu zuten hilaren 22an.

Hitzorduari ekiteko, mahai ingurua aurrera eraman zuten. Asanbladako hiru kidek hartu zuten hitza. Finean, sorreraz eta testuinguruaz mintzatu ziren, orain arte egindako jardueraz; irakurle taldeaz, besteak beste. Ondotik, multzoaren oinarrien gainean jardun ziren, fanzineko bi testuetatik abiatuta: independentzia politikoa eta zapalkuntza ororen aurkako borroka. Bukatzeko, proiektuaren alde artistikoari heltzeaz gain, artearen funtzio politikoaz hausnartu zuten. Argi utzi zuten diziplina hori gizartea eraldatzeko tresna dela eta ideia horri jarraiki sortu dutela lan autogestionatua. Horrenbestez, uste dute "formakuntzarako liburuxka" ere izan daitekeela.

Formakuntzak formakuntza, hainbat atal ditu *Karabista*-k. Hasteko, Asanbladaren aurkezpena eta taldeak egindako bidea. Jarraian, arrestian aipaturiko bi oinarrien azalpen sakona. Komikirik ere bada ikusgai: bertan, irudietatik eta umoretik partituta, espazio faltaren auzia eta



Kriseilu asanbladako kideak, fanzineari buruzko azalpenak ematen. TXINTXARRI



Orotariko eduki interesgarriekin osatu dute argitalpena. TXINTXARRI

poliziaren kontrola landu dute. Ondoren, kulturari eta artistei erreferentzia egiten dion horoskopoa sartu dute, baita Lasarte-Oriako kultura undergroundako Reclusion taldea gomentatu ere. Gabriel Arestik ida-

tzitako *Harri eta Herri* olerkariaren zati batekin itxi dute fanzinea. Bukatzeko, jakinarazi dute aleak eskuragarri daudela eta horietako bakoitzak 2 euro balio dituela. Informazio gehiago, euren sare sozialetan.

dik nerabiltzan intuizioak eta gertakizunak".

*Narrugorrik* ez da ohiko trama eta pertsonaiadun fikziozko liburu bat. Rozasen hitzetan, material, intuizio eta geruza desberdinekin egindako "konposizio moduko bat" da, argumentu lineal baten ordez paisaia bat eraikitzen duena. Bertan, Lasarte-Oria (batzuetan zuzenean izendatua eta beste batzuetan zeharka iradokia) eta beste toki batzuk oso presente daude, horiek espreski zeintzuk diren ez aipatuta ere.

## KULTURA

## Biluztasun uneez eta moduez egindako konposizioa aurkeztu du

### Txintxarri

Ixiar Rozas idazle lasarteoriatarrak *Narrugorrik* lana ekarri zuen herrira hilaren 21ean eta aurkezpen ekitaldi goxo bezain dinamikoa egin zuen alboan izan zuen Aintzane Usandizaga idazlearekin batera.

Liburuaren izenburutik hasi eta *narrugorrik* hitzak zer esan nahi duen galdetu zion Usandi-

zagak. Idazleak azaldu zuen Euskaltzaindiaren herri hizkeren atlasetik hartu zituela *biluzik* esateko aldaerak (liburuaren atalak ere badira; *biluzik, narrubixik, narrugorrik, biloxik, larruhas, larrugorrin, pikarrai* eta *bülüzgorri*), Euskal Herri osokoak. "Hitz horiekin maitemindu nintzen eta nire barnearekin lotu nituen lehen-

## NEURE KABUZ

## Aspaldiko argazkia



GORKA LASA  
KOLABORATZAILEA

Astearte arratsalde luze, motel eta astunaren amaierak iluntzeari keinu egiten zion tarte horretan, non termometroaren merkurio gorriak oraindik ere 30 zenbakitik gertu jarraitzen zuen, zutabe hau idatzera eseri nintzen etxeko sukaldeko leiho ondoan. Egia esan, bero egiten zuen, baina itsaso aldetik ufadaxoka sartzen zen aire fin, mehe, xume batek freskatzen zuen ingurua momentuka, bero saparen astuntasuna engainatzeko lain.

Kostaldeko brisatxoahula izan arren, freskotasun sentazioa eskertzekoa zen, eta egun osoz beroaren infernu karga gainetik kendu ezinik ibili ondoren, zama arintzen zuten pixka bat bederen.

Pareko etxea itzaletan zegoen jada, arratsalde osoa eguzki izpi erreek fatxadako zuritasunaren distira galdua dagoeneko, eta ordura arte erabat itxita egon ziren leiho eta pertsianak zabaltzen hasiak ziren.

Bat-batean ahotsak entzuten hasi nintzen, gertu, saiakera berezirik egin gabe elkarrizketa entzun eta ulertzeko moduan.

**"Garaiak aldatu egin dira, gure bizilagunak ezagutu ere ez ditugu egiten, eta ezagututa ere, buruaz ozta-ozta kasu egin eta aurrera goaz"**

Gizon emakume baten arteko solasaldia zen, gazteleraz. Kuriositateak jota, leihotik burua atera eta balkoitik balkoira hitz aspertuan ari ziren bi auzokide ziren, bata laugarren pisuan, bosgarrenean bestea.

Luze jardun zuten hizketan, hango eta hemengo kontuez, garai bateko eta oraingoz, norbaiten heriotzaz, bizitzaz, beroaz, nola ez.

Orain ikusten ez den argazkia nuen parez pare;

komunikatzeko eta sozializatzeko beste era bat.

Mugikorrek eta sare sozialak gailendu zaizkigun aro honetan, non aurrez aurre hitz egin beharrean nahiago dugun audioz edo idatzizko mezuez komunikatu, auzoan badago oraindik ere lehenengo ohiturari eusten dionik.

Garaiak aldatu egin dira bai, gure bizilagunak ezagutu ere ez ditugu egiten, eta ezagutu arren ere, buruaz ozta-ozta kasu egin eta aurrera goaz.

Bero sapari buruz idazten hasi naiz, kexati. Baina gaurkoan behintzat, beroaren aitzakiaz, zutabe hau idatzeko gaia izan dut, eta aspaldian ikusi gabeko argazkia berreskuratzea ere bai.



Aintzane Usandizaga eta Ixiar Rozas, hizketan. TXINTXARRI



Oaintxe in deu!, Los Espontaneos, Goxo eta Malatxo txaragetako kideak. TXINTXARRI



Eguneko aurreneko doinuak ez ziren txarangenak izan, txistularienak baizik. TXINTXARRI

## GIZARTEA

# Iazko doinuekin jarraitu dute aurten: musika alai eta giro ederrarekin

Sei taldek parte hartu dute II. Txaranga Egunean: Oaintxe in deu!, Arranopola (gure herrikoak horiek biak), Kita del Pare, Los Espontaneos, Goxo eta Malatxo. Dantzan jarri dituzte kalez kale beraiekin ibili diren jarratzaile guztiak

## Lierni Apaolaza Urdanpileta

Oaintxe in deu! taldearen hamargarren urteurrenaren harira antolatu zuten lehenengo Txaranga Eguna, iaz, talde horretakoek bertakoek eta Lasarte-Oriako Udalak. Harrera bikaina izan zuen ekimenarekin jarraitu dute aurten eta jarduera batzuk berri-urten arren, musikari eta giro alaiari heldu diote.

Hamaika Doinu txistulari taldekoek ekin zioten larunbatari (hilak 23). Kaleak esnatu eta herritarrak berotu zituzten: melodiak entzun eta Okendora joan

ziren asko, festa gogoz. Enparantza berean, instrumentuak egiteko tailerrarekin ederki pasa zuten hurrek; helduek ere bai, noski. Klarineta, saxoa edota tronpeta. Aukeran, hiru musika tresna horietako bat lortzeko aukera izan zuten. Oaintxe in deu! taldekoek dinamizatu zuten tailerra.

Ostean hasi ziren txarangen emanaldiak; bi orduko bolo bana egin zuten horietako bakoitzak. Oaintxe in deu!-k bukatuta, Astigarragako Kita del Parek alaitu zuten txarangapotea; Buenetxea,

OKS eta Patricio tabernatan. Ondotik, Teruelgo Los Espontaneosek bazkalostea dantzan eta kantuan jarri zituen garai bateko abestiak interpretatuta. Iruñatik etorri zen Goxo Txaranga, eta Tafallatik Malatxo.

Eta azken txandarako, zita berezia: herriko Arranopola txaranga gazteak urtebetetzea ospatu du, iazko Txaranga Egunean debutatu baitzuten. Urtebetetzea ospatzeko; koloretako txanoekin, bandekin eta girlandekin apaindu ziren. Tradizio bilakatuko den eguna horrekin amaitu zen.



Gaztetxo hauek, pozik, tailerlean egindako instrumentuekin. TXINTXARRI



Kita del Pare txarangako kideek gidatu zuten eguerdiko txarangapotea. TXINTXARRI



Arranopola txarangakoek itxi zuten egitaraua. Urtebete daramate jotzen. TXINTXARRI



Den-denek gozatu zuten. TXINTXARRI



Txarangek dantzan jarri zituzten jarratzaileak. TXINTXARRI

# XI. EUSKARAREN MARATOIOA



Saltsa guztietako perrexila izango dira argazki honetan ikusten dituzuen zortzi saltseroak. TXINTXARRI

EUSKARA

## Euskararen akelarrean sartzeko deia egin dute

Urriaren 17an eta 18an egingo dugu 11. Euskararen Maratoia, 'Piztu! Sugarra gu gara' lelopean. Zortzikotea, leloa, logotipoa eta prestatu dituzten bi abestietako bat erakutsi dituzte Jalgi kafe antzokian

### Txintxarri

Alerta laranja emana zegoen hilaren 27an, tenperatura altuengatik eta sute arriskuengatik. Bada, Jalgin piztu zuten sua, baina ez urteko garaiotan tamalez gero eta ohikoagoak diren suteak bezalakoa, desberdina eta berezia baizik: kiskali baino, sutondora biltzen diren guztiak goxatzen dituen; parean jartzen zaion guztia erraustu ez, hazi berriak ereingo ditue-

na; izutzeko, epaitzeko eta zigortzeko izan ordez, euskararen bueltan biltzeko, saretzeko eta bizitzeko erabiliko dutena. Hitz gutxitan, euskararen sugarra, urriaren 17an eta 18an egingo duten 11. Euskararen Maratoiaren bidez piztuta mantenduko dutena.

Ordura arte tentuz gordetako misterioak erakarrita, lepo betetzen Jalgi: Lierni Arozena eta Olaia Rekondo trikitilariei segika etorri ziren zenbait ikus-en-

tzule, Ttakunenea elkartean bileran egin ondotik, eta dagoeneko tabernan zeudenekin elkartu ziren. Horien artean izan ziren udal korporazioko zenbait alderditako ordezkariak eta baita aurreko edizioetan zortzikoteko kide izandako zenbait lagun ere: Vicky Castro, Coro Dominguez, Joxe Mari Azkonobieta, Esti Garmendia edota Mikel Izquierdo. Euskararen bueltako ekimen hori aurten dinamizatuko duten zortzikoteko kideak, logotipoa eta leloa aurkeztu aurretik, Mainer Segurola kazetariak testuinguruan jarri zuen jardura bera: "Lau urtean behin egiten dugun

gure euskararen festa da. 40 orduz mikrofonoa ez dadila isildu euskarazko jardunean. Euskararen unibertsora ateak zabaldu nahi dizkie maratoiak euskara ikasten ari direnei, euskarak erakartzen ditueni, ausartzen ez direnei baina nahi dutenei, heldu zein gazte, zahar zein haur... eta euskaraz hitz egiteko dinamikak sortzeko ahalegina ere bada maratoia. Euskaratik herria eraikitzeak". Esan bezala, ekitaldia Jalgin egin zuten, "apustu guztiak handira egitea hain boladan dagoen honetan, Maratoia nondik datorren ahaztu ez dezagun: herritik sortu zen eta herriak

egiten du". Gaur-gaurkoz, Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen dute, lan-kidetzan. 40 orduz etengabe euskaraz, lau hamarkadatan zehar. 1986an aurrera eraman zuten aurreneko Euskararen Maratoia. Urriaren 17an eta 18an ospatu beharreko beste mugarri bat izango da, beraz, ekimenaren 40. urteurrena.

### Aurtengo zortzi saltseroak

Euskararen sugarra piztea eta halaxe denbora luzez mantentzea gu guztien ardura izango den arren, zortzi herritar saltsero izango dira Maratoiaren txinparta. Banan-banan aurkeztu zituen Segurolak: Rebeke Garzes Aldazabal, Iñaki Etxegia Loiarte Patxo, Pili Romero Lombardo, Maitane Eizmendi Nogales, June Huici Eceiza, Jagoba Mendizabal Imaz, Malaak Lazear El Machat eta Joxe Mari Agirretxe Kerexeta. Oholtzara igo ahala kamiseta arrosak jantzi



**XI. EUSKARAREN  
MARATOIA**

**piztu!**  
sugarra gu gara

**2026  
URRIAK 17-18  
LASARTE-ORIA**










zituzten, urri erdialdera arte soinean eramango dituzten "uniforme berriak". Horrekin eman zuten leloari eta logotipoari buruzko aurreneko pista, Piztu! hitza eta aurpegidun sugarra. Ondoren, urri erdialdeko ekimena iragartzeko bi kartelak erakutsi zituzten; Julian Toquerok egin ditu biak ala biak. ortzikoteko kide beteranoenak hartu zuen hitza, Joxe Marik, bere burua eta gainerako zazpiena –Jagobak ezin izan zuen ekitaldira bertaratu baina oso presente izan zuten kideek; bere urtebetetze eguna zenez, gainera, Zorionak zuri abestu zioten– aurkezteko.

Horren aurretik, gogoratu zuen zein izan zen 1986ko aurreneko edizioko helburua: "Agus Mujikari bururatu zitzaionean Maratoiarena, mikrofonoa oholtzan, zortzikotea... Jakin nahi genuen gure herrian zenbatek

hitz egiten zuten euskara, orduan ez baikenkan horri buruzko azterketarik".

#### Aurten, bi abesti

Zortzikoteko kideak, leloa eta logotipoa ez ezik, aurtengo bi abestietako (40 urtetan aurrenekoz sortu dituzte bi kantu; bigarrenaren berri aurrerago emango dute) bat ere aurkeztu zuten. Earra! bertso eskolako kideena da letra eta hiru lagun igo ziren oholtzara horri buruzko azalpenak ematera: Maddi Lasa, Araitz Ramos eta Lierni Rekondo. "Ilusio eta ardura handiz" jaso zuten antolatzaileen proposamena eta berehala ekin zioten lanari, Piztu! Sugarra gu gara leloa buruan: "Pentsatu genuen ea zer piztu nahi genuen hemen, gure herrian. Era berean, festa girokoa izatea nahi genuen, urte osoan zehar abestu eta dantzatu ahal izateko".

Kanpoaldean mokadutxoa jan aurretik, euskararen sugarra pizten hasi direla irudikatzen talde argazkia atera zuten, datozen hilabeteetan mihietan eta bihotzetan ibiliko dugun leloa oihukatuta: Piztu! Sugarra gu gara!.



**Rebeka Garzes Aldazabal**

51 urte, fase interesantean sartuta. Hezitzailea eta sindikalgintzaren itsasoan murgilduta. Nobela beltza maite du eta barrea da bere kriptonita.



**Iñaki Mikel Etxegia Loiarde "Patxo"**

Parrandagutxi beranduetxera, AldaPATXOko alkatea. Zaletasun nagusia 22 ordu lotan pasatzea, baldin eta parrandan ez badago.



**Pili Romero Lombardo**

46 urteko psikologo zaragozarra. Familia, Extremadurakoa. Beraz, Extremaña ezizena ondo irabazia du. Izar izeneko katua du eta mendebaldeko Afrikako dantzak gustuko ditu.



**Maitane Eizmendi Nogales**

Unibertsitatean jo eta su, komunikazioa ikasten eta gidolari izateko bidean. Hitz egitea, trikitixa jotzea, parranda egitea, zinema ikustea nahiz egitea eta beste hainbat zaletasun ditu.



**Malaak Lazaar El Machat**

Marokoar jatorria du 21 urteko Gizarte Langintzako ikasle honek. Zumarragan jaioa izan arren, lasarteoriartzat du bere burua. Jendea ezagutzea, hitz egitea eta pentsatzea gehiago gustatzen zaio.



**Jagoba Mendizabal Imaz**

27 urteko Musika eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea. Herrigintzan burubelari dabil, eta baita plazaz plaza ere bere musika taldearekin. Euskararen bigarren Maratoia du zortzikoteko kide gisa.



**June Huici Eceiza**

16 urte, taldeko gaztetxoa. Batxi 1 bukatu eta gero zer egingo duen ikusgai. Dantza, gimnasia erritmikoa eta haurrak gustuko ditu. Konbinazio ederra ondo pasatzeko!



**Joxe Mari Agirretxe Kerexeta**

Euskaraz jolastu, amestu eta bizi da. Xumela koruan, Borobilean elkartean eta Bizipozan parte hartzen du. Haurren eskubideak eta kulturartekotasuna erdiguneari jartzeko ahaleginarekin ari da.

# 40 URTE!

1986tik, 2026ra



Nahia Garcia, Amelie Flores, Alaia Romero eta Mari Carmen Olaso herritarrak, podiumetan. OSTADAR ATLETISMOAI. ROMERO/MC OLASO

**ATLETISMOA**

## Herriko atletak lehen postuetan sailkatu dira maila ezberdinetako txapelketetan

Euskadiko Kirol Jokoetan eta Gipuzkoako txapelketako azken saioan aritu dira lehen

**Txintxarri**

Lasarte-Oriako atletak hitzordu bikoitzari egin zioten aurre, hilaren 23an. Euskadiko Kirol Jokoetan zein Gipuzkoako txapelketan izan ziren nor baino nor herriko kirolariak eta bietan irabazi zuten dominarik.

Goizean, gazteenek Euskadiko Kirol Jokoei egin zieten aurre. Ostadar SKTko Nahia Garcia (jauzi hirukoitza) eta Amelie Flores (80 m. hesi lasterketa) zein Real Sociedad taldeko Alaia Romero (150 m. lasterketa eta 4x80 m. erreleboa) Gipuzkoako Selektzioarekin izan ziren lehen eta hirurak euren probetako podiumetara igo ziren. Ikus koadroa.

Arratsaldean, aldiz, 20, 18 eta 16 urtez azpiko zein master mailako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia lehiatu zen, Arrasaten.

Jauzi hirukoitzeko zein 3.000 metroko lasterketako probetan parte hartu zuten Ostadar SKTko kideek eta Mari Carmen Olaso herritarrak; lehen postuetan izan ziren. Ikus koadroa.

**Espainiako txapelketara**

Horrez gain, Ostadar SKTko arduradunek jakinarazi dutenez, taldeko Amelie Flores eta Eider Redondo kideek euren kategoriako Espainiako txapelketetan parte hartzeko markak dituzte. Ekainean eta uztailean izango dituzte hitzorduak.

Floresek 16 urtez azpiko 80 metro hesiko gutxienera eta Redondok 18 urtez azpiko proba konbinatuetako lehiaketan egiteko txartela eskuratu zuen hilaren 23an, Barbastron (Huesca, Aragoi), bere marka pertsonala onduz (4.522 puntu).

**EUSKADIKO EUSKAL JOKOAK**

- Nahia Garcia (Ostadar SKT):
  - Jauzi hirukoitza - 1º
- Amelie Flores (Ostadar SKT):
  - 60 m. hesi lasterketa - 1º
- Alaia Romero (Real Sociedad):
  - 150 m. lasterketa - 1º
  - 4x80 m.erreleboa - 1º

**GIPUZKOA TXAPELKETA**

- 16 urtez azpikoa
  - Nahia Garcia (Ostadar SKT):
    - Jauzi hirukoitza - 1º
- 18 urtez azpikoa
  - Irati Gallego (Ostadar SKT):
    - Jauzi hirukoitza - 1º
- 20 urtez azpikoa
  - Oinatz Almagro (Ostadar SKT)
    - Jauzi hirukoitza - 1º
- F55 Master maila
  - Mari Carmen Olaso:
    - 3.000 m, lasterketa - 1º

**PILOTA**

## Herriartekoan, ezin aurrera egin

Gomazko Paletako Herriartekotik kanpo geratu da Lasarte-Oria. Tolosak, joaneke neurketaren antzera, 2-1eko emaitza lortu zuen Loidibarren pilotalekuan hilaren 24an jokatuak saioan. Banakako lehiatan nagusi izan ziren aurkariak eta binakakoan irabazi zuten puntuak herritarrek.



TXINTXARRI

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LARUNBATA 30**

- GORENGO MAILA, IGOERA**
  - Ostadar SKT - Ordizia KE 18:00. Michelin kirol gunean.
- OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA**
  - Ostadar SKT - Beti Gazte 16:00. Michelin kirol gunean.
- INFANTIL TXIKI, KOPA**
  - Iiintxa SD - Texas Lasart. CF 10:00. Irene Paredes, Legazpin.

**IGANDEA 31**

- KADETE I. MAILA, IGOERA**
  - Ostadar SKT - Behobia CD 10:30. Michelin kirol gunean.

**ARETO-FUTBOLA**

**OSTIRALA 29**

- E. I. MAILA, KOPA, FINALA**
  - Eguzki ISU Leihoak - Anoeta FT B 20:50. Maialen Chourraut kirol.

**LARUNBATA 30**

- GAZTEEN MAILA, FINALA**
  - Eguzki Lekuona T. - Laskorain KE 12:00 Maialen Chourraut kirol.
- KADETE MAILA, FINALA**
  - Eguzki Escalerilla T. - Lauburu 10:00. Maialen Chourraut kirol.

**BOLEIBOLA**

**LARUNBATA 23**

- GIPUZKOAKO KOPA**
  - Ostadar SKT A - Tolobolei 17:30. Maialen Chourraut kirol.
  - Ostadar SKT B - Aidean ZKE A 15:30. Maialen Chourraut kirol.

**PILOTA**

**OSTIRALA 29**

- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
  - Añorga - Intza (Elola) 18:30. 1. partida. Añorga, Donostian.

**LARUNBATA 30**

- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
  - Bueno/Urkola - Odriozola/Ollokiegi 10:00. Loidibarren pil.

**ASTELEHENA 1**

- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
  - Zarra/Martin - Arrondo/Goikoetxea 19:00. Loidibarren pil.
  - Etxezarreta/Sorrondegi- Eleizegi/Gonzalez Jarraian. Loidibarren pil.

**ASTEARTEA 2**

- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
  - Bueno/Urkola - Ortiz/Carbayeda 19:00. Loidibarren pil.
  - Iparragirre/Astiazaran - Rekondo/Bazkez Jarraian. Loidibarren pil.

**ASTEAZKENA 3**

- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
  - Begiristain/Castro - Etxezarreta/Sorrondegi 19:30. Loidibarren pil.

**TENISA**

## Mariasun Yurrita, beterano mailako Euskadiko txapeladun

Hilaren 16an, beterano mailako Euskadiko txapelketa lehiatu zen Algortako (Bizkaia) Jolaseta Klubean eta LOKEko entrenatzaile Mariasun Yurritak 55 urte baino gehiagoko finalean parte hartu zuen. Herritarrak Maravillas Solano gainditu zuen nagusitasunez, 6-3 eta 6-2 eta Euskadiko txapela jantzi zuen.

- Kortajarena/G. Arteaga - Mendizabal/Urruzmendi Jarraian. Loidibarren pil.

**OSTEGUNA 4**

- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
  - Jauregi/J.M. Arteaga - Arruti/Errasti 1:00. Loidibarren pil.
  - Odriozola/Ollokiegi - Artetxe/Artetxe Jarraian. Loidibarren pil.

**GIMNASTIKA ERRITMIKOA**

**LARUNBATA 30**

- EUSKADIKO TXAPELKETA**
  - LOKEko amateur mailako Kadete B taldeak Euskadiko txapelketa jokatu du. Egun osoa. Durango, Bizkaian.

**IGERIKETA**

**LARUNBATA 30**

- LASARTE-ORIA SARIA**
  - Buruntzaldea IKTK Lasarte-Oria Saria antolatuko du. 15:30. Maialen Chourraut kirol.

**ERRUGBIA**

**LARUNBATA 30**

- IZAR BELTZAK OROIMENEZKOA**
  - Beltzak RTk Izar Beltzak 5. oroimenezkoarekin emango diote amaiera denboraldiari. Egun osoa. Atsotakari, Ginea.
- EUSKAL LIGA, EMAK., FINALA**
  - Gaztedi RT - Geurea RT 15:30. Asti, Zarautzen.

**IGANDEA 31**

- 10,12 ETA 14 URTEZ AZPIKOA**
  - Beltzak RTko gazteboek Kontxako hondartzako txapelketa jokatu dute. 10:00. Kontxako hondartza, Donostian.

**ATLETISMOA**

**LARUNBATA 30**

- EUSKADIKO TXAPELKETA**
  - Mari Carmen Olasok master mailako Euskadiko txapelketa lehiatu du. Arratsaldea. Durango, Bizkaian.

**TXIRRINDULARITZA**

**IGANDEA 31**

- Andoaingo Txirrindularitza Eskolako herritarrek Luis Meoqui Memorialean parte hartuko dute. 10:00. Murieta, Nafarroan.

**DENBORALDI AMAIERA**

**LARUNBATA 30**

- OSTADAR SKT**
  - Ostadar SKT denboraldi amaierako jaialdia ospatuko du. 12:00. Oriarte BHI - Landaberri.



M. YURRITA

**Txintxarri**

Eguzki AFko taldeak finaletik finalera dabiltza azken asteburuetan. Eguzki Andatza taberna infantil taldea Euskadiko Kirol Jokoetan izan da lehian hilaren 23an, Arrasaten. Astebete geroago, Eguzki Lekuona Tailerrak eta Escalerilla taldeek Gazte eta Kadete kategoriako Gipuzkoako Txapelketa jokoan izango dute, Lasarte-Orian eta gaur (hilak 29), gainera, Eguzki ISU Leihoak taldeak Erregional I. Mailako Kopa lehiatuko du.

Eguzki Andatza tabernak Gipuzkoa ordezkatu zuen Euskadiko Kirol Jokoetan. Gasteizko (Araba) Ibaialde Salburua Berdea eta Etxeberri (Bizkaia) Kukuia-ga Etxeberri taldeen aurka hiruko txapelketa jokatu zuen. Arabarren aurka garaipenarengatik borrokatu behar izan zuen arren, bizkaitarrek ezin izan zuten ezer egin Lasarte-Oriako ordezkarien aurka. Ikus koadroan.

Bi aurkariak gaudituta, Euskadiko Kirol Joko txapeldun da Eguzki Andatza taberna. Garaikurrak, gainera, Espainiako txapelketako lehen faseko sailkapena ere dakar; ekainaren



Eguzki Areto Futboleko gazteak, garaikurrarekin eta Araba eta Bizkaiko ordezkariarekin batera. EUSKADIKO EUSKAL JOKOAK

**ARETO FUTBOLA**

## Euskadiko Kirol Jokoak, Liga eta Kopa; Eguzkiko taldeak, finaletik finalera

Eguzki Andatza taberna taldeak Euskadiko Kirol Jokoak irabazi ditu

5etik 76ra Cartagenan (Murtzia) jokatu da lehiaketa.

**Finalak, Lasarte-Orian**

Horrez gain, Kadete zein Erregional I. mailako ordezkariak euren lehiaketako finalerdie

egin zieten aurre azken jardunaldian. Ikus emaitzak koadroan.

Eguzki ISU Leihoak taldeak eta Donipari Bk partida estua jokatu zuten. Binako berdinak osten, etxeokak 4-2 jarri eta ongi eutsi zioten markagai-

luari. Ondorioz, kopa eskuratzeko lehiatuko dira.

Kadeteak, aldiz, nagusi izan ziren neurketa hasieratik Lasakorain A-ren aurka eta Gipuzkoako txapelketako finalean izango dira.

**BOLEIBOLA**

## Ostadar Boleiboleko taldea, lehiakor I. Nazional Mailako igoera fasean

Bi partida irabazita, puntu batengatik ezin izan du azken fasean lehiatu

**Txintxarri**

Hilaren 21etik 24ra I. Nazional Mailara igotzeko fasea lehiatu da Valladoliden (Gaztela eta Leon). Euskal Ligako txapeldun modura, Ostadar SKTko taldea izan da lehian txapelketan.

CV Pontevedra (Galizia), CV La Calzada (Asturias), EDM Cartes (Kantabria) eta CVC Vaceas (Gaztela eta Leon) taldeen aurka aritu zen B multzoan lehen bi postuetan sailkatzeagatik. Aurkariez gain, beroa ere arerio izan zutela aipatu du Asier Acuriola taldeko entrenatzaileak.

Hilaren 22an Galiziarren aurka 3-2ko garaipena erdietsi ostean, gerora txapeldunorde izango zen Asturiaseko La Calzadaren aurka 0-1 aurreratu zen Ostadar, baina jokalariek ezin izan zuten erritmoa mantendu eta azkenean 3-1 galdu zuten.

Hurrengo egunean, lehen neurketan lehia estua izan zuten



Urdin-beltzak, blokeatzen. OSTADAR BOLEIBOLA

Valladolideko Vaceasen aurka; etxeokak 15-12 tie-breakean gailendu ziren. Faseari amaiera emateko Kantabriako Cartes izan zuten aurkari. Nahiz eta kantabiarrek 0-1 aurrea hartu urdin-beltzek ongi jokatu eta borrokatuta 3-1 irabazi zuten.

Igoera ziurtatzen zuten azken faserako atarian geratu zen talde urdin-beltza; multzoko hirugarren geratu zen puntu batengatik.

Eta hori dela eta, bosgarren postua erabakiko zuen lehia jokatu zuen Ostadarrek. CV Sestaoren aurkako euskal derbia izan zen eta 2-0koari itzulia emateko zorian egon zen Lasarte-Oriako taldea. Azkenean, 3-1 irabazi zuten bizkaitarrek.

Asier Acuriola entrenatzaileak azaldu duenez, harro daude jokalariek egindako lanarekin: "Taldeak lehiakorra dela erakutsi du aurkari guztien aurka. Izan ere, aurtengo denboraldian zentzu askotan hazi eta garatu da".

Gainera, Ostadarrek egindako balentria ere ekarri du gogora prestatzaileak: "Sailaren ibilbide motzean -2019an jarri zen martxan- lehiaketa horretara iristen den lehen aldia da eta Gipuzkoako bigarren taldea da maila horretara iristen dena; aurretik CD Fortunak bakarrik lortu du".

**GIMNASTIKA ERRITMIKOA**

## LOKEko gimnastek, jardun ona Euskadi mailako txapelketetan

**Txintxarri**

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak Euskadi mailako txapelketetan lehiatu ziren hilaren 23ean eta 24an eta euren balioa erakutsi zuten.

Tapizera ateratzen lehena Aiala Jimenez izan zen. Hilaren 23an, Euskadiko Kirol Jokoetan parte hartu zuen infantil A kategorian gazteak, Eskoriatzan. Soka eta uztaiarekin egin zuen lan LOKEko ordezkariak eta maila handiko lehia izanik, ezin izan zuten lehen postuetan egon.

Hurrengo egunean, Jubenil A eta B mailako taldeek Amateur kategoriako Euskadiko txapelketako lehen saioari egin zioten aurre; mazoekin egin zuten lan.

Lehenen kasuan, seigarren postuan amaitu zuten lehia. Entrenatzaileek azaldu digutenez, astean zehar gimnasta batek min hartu eta kide berri bat sartu behar izan dute: "Osaera berriarekin bi entrenamendu bakarrik egin ahal izan dituzte. Hala ere ongi erakutsi dute egindako lana".



Jubenil A taldea. LOKE GIMNASTIKA

B mailako kideak, hamahirugarren sailkatu ziren. Tresna horrekin lan egiten duten lehen urtea dela nabarmendu dute elkarteko prestatzaileek: "36 talde ziren eta postu onean amaitu dute mazoekin lehen urtea izateko".

LOKEko arduradunak pozarren daude gimnasta guztiak urtean zehar egindako lanarekin: "Kode berria izan dugu bai kirolari, bai entrenatzaileentzat. Gainera, jubenilek ere tresna berriari egin diote aurre".

Baina ez dira lehiaketak amaitu, hilaren 30ean, Amateur mailako bigarren saioan, Kadete B taldea izango da lehian.

Bi final horiek zein gazteen Gipuzkoako txapelketakoa Lasarte-Orian jokatu dira, Maialen Chourraut kiroldegiko pistan.

Erregional I. Mailako taldeak, gaur, 20:50ean, Anoeta FT B izango du aurrez aurre.

Kadete eta Jubenil mailako finalen goiza hilaren 30ean izango da. Lehenik kadeteek Lauburu Zubiaurre tabernaren aurka neurtuko dituzte indarrak eta 12:00ak aldera, jubenilek Laskorain KE izango dute aurkari. Bi norgehiagoken artean Eguzkiko jokalaria eta Jalgune elkarteko kideek partida bat jokatu dute.

**Nerea Eizagirre** ZUBIETA

Nork esango lioke Michelin zelaian 8 urte zituen Jon Martin Vicente (Lasarte-Oria, 2006) haurari hogeitun urte geroago Realean jokatzeko egongo zenik edo Errege Kopa altxako zuenik. Izan ere, defentsa txuri-urdirak onartu digunez: "Ni 8 urterekin edo hala hasi nintzen Ostadarren, 8-9, ez dakit zehazki. Baina txikiagoa nintzenez 5-6 urterekin, amak esaten zidan nire anaia, nire lagunak... jokatzeko zeudenez nik normalean ez nuela jokatzeko, ez dakit zergatik. Agian nahiago nuen parkera joan jolastera edo edozer gauza. Baina gero azkenean Ostadarren hasi nintzen, nire lagunekin eta futbolarekiko grina sortu zen eta aurrera".

Denboraldia amaitzeko partidak baten faltan bildu ginen Realeko hamaikakoan finkoetako bat izan den defentsarekin Zubietako harmailetan. "Bukatze gogoekin" zegoela nabarmendu zuen: "Partida asko izan dira eta Errege Kopa ondoren ere lehia asko jokatu ditugu". Eta Espanyolen aurkako azken partidaren "ahalik eta ondoen amaitu nahi" zutela eta "irabaztera" zihoazela ere erantzun zigun. Azkenean, Oskarssonen golarekin aurrea hartu arren, *perikoek* bana berdintzea lortu zuten eta puntu banaketarekin konformatu behar izan zuten.

Hala eta guztiz ere, denboraldi ederra egin du Lasarte-Oriako jokalaria eta aurtengo garapenaren eta bestelako gaien gainean egindako galderei erantzun zigun, prestuki.

**Denboraldiaren errepaso azkar bat egingo dugu. 20 urtez azpiko Mundiala jokatzeko zinelak lesioa izan zenuen. Zer pentsatu zenuen momentu horretan?**

Liga hasi eta 20 urtez azpiko selekzioarekin jokatzeko aukera agertu zitzaidan. Txilera joan nintzen eta lehenengo entrenamenduan orkatila bihurritu nuen eta buelta... Bueltan, hemen, hilabetetxo bat eta berriro prest.

Gogorra egin zitzaidan, selekzioarekin joateko gogoia nuen. Nik normalean ez ditut horrelako lesioak izan eta beraz, ez nago oso ohituta egoera horietara. Sendatu eta pixkanaka-pixkanaka dinamikan sartzen eta partidak jokatzeko hasi nintzen. **Horren ostean, pixkanaka eta entrenatzailez entrenatzaile zure postua borrokatu eta hamaikakoan**

FUTBOLA

# "Gauza asko esaten eta entzuten dira. Ni Realean zentratuta nago"

**JON MARTIN VICENTE**  
REAL SOCIEDAD TALDEKO ATZELARIA

Denboraldi ederra egin du herritarrek eta Errege Kopa irabaztearekin borobildu du

**jokalari finkoa izan zara. 50 partidak jokatu dituzu dagoeneko.**

Pozik nago, nik uste dut aukera asko izan ditudala, partida asko jokatu ditut denboraldi honetan eta azkenean jokalaria batek hori nahi du; minutuak izan hobetzen joateko. Nik aurten izan ditut, beraz, oso pozik nago.

**lazko urtea maila hartzeko zela esan daiteke eta aurtengoan garapenaren urtea?**

Lehenengo urtean ni berez Sanseko jokalaria nintzen, baina partida bakarra jokatu nuen, Osasunaren kontra. Beste guztia lehen taldearekin eman nuen entrenatzen. Hasieran zerbait jokatu nuen Europan; egia da Liga ez nuela asko jokatu. Baina kontentua bukatu nuen, ze azkeneko zazpi-zortzi partidatan izan nintzen zelaian. Beraz, horregatik oso pozik nengoen eta urte honetan, esan dudana, pixkanaka-pixkanaka joan naiz eta, orain, gogor bukatzen.

**Defentsa zarez banakako borroka horretan oso adi egon zara, baina aireko jokaldietan ere bai. Gainera, bi gol egin dituzu aurten. Pozik zaude horrekin?**

Bai, oso pozik. Nik beti esaten dut azkenean ni defentsa naizela, zentrala naizela, beraz, nire lana defentsa lanak egitea da. Baina gero golekin taldeari laguntzeko aukera badut, ba poztasuna handiagoa da. Aurten bi sartu dira, ea hurrengoan gehiago diren.

**Reala Europako postuetarako egon da borrokan Ligan, baina azkenean**

**Errege Kopa irabazita lortu du txartela. Aurtengo helburua bete duzue? Edo gehiago espero zenuen?**

Bai, nik uste dut helburua zela. Bete da helburua, azkenean Realak azkeneko bospasei urteetan lortu duen zerbait da, beraz hemen jendea ohituta dago. Hor ere presio pixka bat izan dugu. Gainera, guk ere sinisten dugu Europan egoteko taldea eta kloba garela.

**Errege Kopaz ari garela, bi momenturen gainean galdetu nahiko nizuke. Lehena, Eldako partida. Zure lagun, harrobikide Astiazaranen debuta izan zen. Zer sentitu zenuen laguna zelaian zurekin batera ikustean?**

Beno, ba poz handia. Azkenean txikitatik elkarrekin gaude. Ostadarren hasi ginen, Realera ere elkarrekin sartu ginen eta azkenean ba ia maila hauetan biak elkarrekin jarraitzea, ba poz

**"Partida asko jokatu ditut denboraldi honetan eta jokalaria batek hori nahi du"**

**"Errege Kopako aste hori eromena izan zen; beno, hilabete hori guztia. Athletic garaitu genuenetik"**



Jon Martin jokalaria finkoa izan da Realaren hamaikakoetan. TXINTXARRI

handia eman dit eta ba ilusio asko ere bai.

**Eta bestea, finala. Nolako astea izan zen zuentzat?**

Egia esan, aste hori eromena izan zen; beno, hilabete hori guztia. Athletic-en kontrako finalerdia irabazi genuen eta hor dagoeneko mugimendua hasi zen. Jendearen ilusioa handia zen. Guztiak bidaia hori prestatzen... Finalerako gogo askorekin ginen.

Eta beno, gero partida oraindik eromen handiagoa izan zen. Ikusi zenuen partida, zirrargarria izan zen. Eta gero ospakizun guztia. Egia esan oso kontentua nago eta betirako gauza bat izango da.

**Eta egun horietan ere, jendearen gertutasuna sentituko zenuen?**

Ostiralean joan ginenean Sevilara. Hotelean geunden, ezin ginen atera, baina nik Xn edo

edozein sare sozialetan sartzen nintzen eta ikusten nuen han Sevillako kale guztiak beteta zeudela. Hori emozionalki indartsua da eta horrek gero partidaren ondo sartzen laguntzen du.

**Eta gero kopa lortzea...**

Bua, hori ja... saria zen finalean egotea, baina gainera irabaztea eta nola irabazi genuen... Ba egia esan zoramena izen zen.

**Ostean, herritarren berotasuna jaso zuen Realak Donostian eta Lasarte-Orian ere Astiazaranekin batera Okendo bete zenuen. Nola bizi zenuen?**

Bueno, Donostiakoa oso ondo egon zen, jende pila etorri zen gurekin garaipena ospatzera.

Baina Lasarte-Oriakoa ez nuen espero. Espero nuen giroa egongo zela, baina egia esan hainbeste jende, azkenean Okendo plaza guztia beteta zegoen, hori

## Espainiako selekzioarekin lanean

Elkarrizketa egiterako momentuan, Espainiako selekzio Munduko txapelketako aurre zerrendan zegoen Martin. Hilaren 25ean, Luis de la Fuentek 26 jokalarien zerrendan sartu ez arren, herritarra hilaren 30etik Irak-en lagunarteko neurketara arte, ekainaren 4a, lanean izango da taldearekin. Hau da bildu ginenean talde horrekin jokatzearen gainean erantzun ziguna.

**Espainiako selekzioaren harrobiko taldeetan ohiko izan zara azken urtean; orain Munduko txapelketerako aurre-zerrendan zure izena agertzen da. Nola hartu duzu?**

Bueno, ba pozik ere, ez? Azkenean oso selekzio ona da, munduko jokalarari hoberenak daude. Sartzek ere nik uste dut meritu asko daukala. Etortzen denean etortzen bada oso pozik egongo naiz, lanean jarraitzeko asmoarekin.

ere ez nuen espero. Pixka bat urduri nengoen, zeren eta azkenean lehenengo aldia zen nire herriaren aurrean. Baina oso pozik. Oso pozik eta eskertuta. Egunerokotasunean ere jendea gerturatu zaizu eta animoak eman dizkizute?

Bai. Lasarte-Orian, batez ere, bizitza normala egiten dut. Ez naiz erdialdean edo asko ibiltzen, baina lagunekin eta jaisten naiz zerbait hartzera edo edozer. Eta bai, azkenean jendea gerturatzen zaizu zoriontzera, argazki baten bat egitera eta horrekin ere eskertuta nago.

**Lanak ere bere fruituak ditu. Zure izena komunikabideetan ezaguna egin da eta beste taldeekin lotzen saiatu dira. 2031ra arte kontratua duzu. Hurrengo denboraldian ere Realeko elastikoarekin ikusiko zaitugu zelaian?**

Bai, gauza asko esaten dira eta gauza asko entzuten dira. Ni hemen zentratuta nago. Bizitza osoa daramat hemen, nire etxea da. Oso kontentu nago eta jarraitzeko asmoarekin. **Eta 31 dortsala alde batera utziko duzu?**

**"Lasarte-Oriakoa ez nuen espero. Urduri nengoen, lehenengo aldia zen nire herriaren aurrean"**

Realeko jokalarari Jon Martin herritarren elkarrizketa osoa ikusi nahi baduzu, aukera duzu TXINTXARRIren webgunean edo ondoko QR-a eskaneatuz.



Beno, egia esan ez da gauza bat garrantzi handia ematen diodana, baina beno, izan liteke, izan liteke.

**Ostadarretik Europara edo Munduko txapelketara. Zein oroitzapen dituzu Michelin zelaiko entrenamenduen gainean?**

Egia esan oso onak. Han hasi nintzen, Lasarte-Orian, Ostadarren, Michelinen, nire lagunekin. Ondo pasatzeko asmoarekin. Eta azkenean pixkanaka-pixkanaka pausoak ematen honaino iritsi naiz, eta egia esan oso eskertuta nago beraiei.

**Michelinetik Zubietara haur askoten ametsa bete duzu. Errege Kopa baino lehen kuadrillakoek "Ume baten ametsa egi bihurtuz" pankarta atera zuten. Bi urte egin dituzu profesional modura, oraindik amets asko izango dituzu betetzeko...**

Noski, azkenean nire ametsa jokatzen eta disfrutatzen jarraitzea da. Eta Kopako tituluko edo egun horietako ahalik eta gehien bizitzea, oso ona izango litzateke. **Nola ikusten duzu zure ibilbidea? Realean zaude zentratuta, baina defentsa onena izateko ikusten duzu bidea aurrera egitekoa?** Ez zait asko gustatzen ere oso urrutira begiratzea. Ni oso gaztea naiz eta lanean jarraitu behar dut. Momentuz, bihar, [Espanyolen aurkako partidaz ari da] ondo bukatu. Deskantsatu, eta gero, denboraldiaurrean ondo eta indartsu hasi.

## DENBORALDI AMAIERA

# Ostadar SKTko sailekoak, denboraldiari amaiera emateko, Oriarten bilduko dira

Kirola onena eta Auzolan sariaz gain, aurten Kirol Ibilbidea saria ere banatuko du elkarteak

## Txintxarri

Kirol denboraldia amaitzear da, hainbat sailek oraindik azken jardunaldi edo kanporaketak jokatzeko badituzte ere, Ostadar SKTko denboraldi amaierako jaialdia egingo du hilaren 30ean, 12:00etan, Oriarte BHko Landaberri eraikineko patioan.

Sailez sail elkarte urdin-beltezko prestatzaileek euren taldeetako jokalarari edo kideak saritzen dituzte urtean zehar egindako lanarengatik.

Horiez gain, ohi modura Kirolari Onena eta Auzolan saria ere banatuko ditu Ostadar SKTko.

Kirolari onena saria, ondoko orrialdeetan elkarrizketatutako Realeko defentsa eta herritar Jon Martini emango diote aurten egin duen denboraldiaren



izako jaialdian sarituak izan ziren kirolari, prestatzaile eta herritarrak. TXINTXARRI

gatik eta Realekin Errege Kopa irabazteagatik.

Auzolan saria, aldiz, herriarentzat egiten duen lan guztia-rengatik Jesus Mari Egizabalek jasoko du.

Eta aurten beste aintzatespen bat ere egingo du talde urdin-bel-

tzak, Kirol Ibilbidearen saria, eta Ander Bardaji atezain ohiak jasoko du.

Ekimena amaitzean saritu eta kirolari guztiek Beltzak RTko beteranoei prestatutako hirugarren denboraz gozatu ahaliko dute.

## Izar Beltzak oroitzen

Atsobakar kirol gunean ere denboraldi amaierako jai giroa izango da nagusi; Beltzak RTko kideek Izar Beltzak 5. oroimezkoa antolatu dute.

Goizean, eskolako gaztetxo eta gurasoen txanda izango da. 10:00etan, jolasak eta ariketa ezberdinak egingo dituzte eta haurrek gurasoen aurkako partida ere jokatuko dute. Eta

indarrak berreskuratzeko hirugarren denboraz gozatu dute.

Arratsaldean, 15:30ean, Gaztedi RT eta herriko errugbilariak biltzen dituen Beltzak Lasarteorians taldeen arteko errugbi partida izango da.

Amaitzean, sari banaketa egingo da eta bertan izar beltzei edo taldeko kide zendei



TXINTXARRI

omenaldia egingo zaie. Hirugarren denboraren atarian, Hoku-Kai polonesiar dantza taldearen emanaldia izango da.

## IGERIKETA

# Igerilariak, azken lehietan bikain

Alebin eta benjaminen azken jardunaldia, Gipuzkoako Saria, Igerilari osoa... azken asteetan Buruntzaldea IKTko kideak lehiatzen ibili dira eta ederki jardun dira guztietan.

Nabarmentzekoa da Oier Perezek azken proba horretan 100 m. bular proban lortutako zilarrezko domina. Hilabeteari amaiera emateko igerilari guztiak hilaren 30ean Maialen Chourraut kiroldegian izango dira Lasarte-Oria Sarian.



BURUNTZALDEA IKT

## ZORION AGURRAK



**Enaut**  
la 23 urte... Nola pasatzen den denbora! Ondo ospatu zure eguna! Besarkada erraldoi bat, Oier aiton-amona eta familien partetik bihotzez.



**Gonza**  
Zorionak Gonza!! Jadanik 13 urte zoragarri zure ondoan. Asko maite zaitugu. Euge, aita eta ama.

## SUDOKUA

	2	8		4	7	3	6	
	3						5	7
			6		8			
					6		4	
7		3			4			
2		4					8	6
5		7		8		6		9
		9	2			4		
		2					7	8

Sudoku-online.org

## Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta [txintxarri.eus/zorionagurra](https://txintxarri.eus/zorionagurra) helbidean sartu.

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 29	KNIESE
LARUNBATA, 30	DE MIGUEL
IGANDEA, 31	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 1	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 2	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 3	LASA
OSTEGUNA, 4	GIL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: l.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia  
 Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

## OHARRA



## IRAGARKI SAILKATUAK

## Iragarkia jartzeko

943-37 14 48  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
[www.txintxarri.eus/sailkatuak](http://www.txintxarri.eus/sailkatuak)

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Ur parkea, zabalik

Udako denboraldiari hasiera eman diola jakinarazi berri du Lasarte-Oriako Udalak: Atsoka-karreko ur parkea berrireki zuen atzo, hilak 28. Lehenxego zabaltzekotan ziren baina atzeratu egin behar izan zuten eguna, "sabotaje" bat pairatu zuelako azpiegitura horrek. Pieza bat aldatu behar izateak luzatu du kontua.

WHATSAPP KANALA  
Lasarte-Oriaren berri, gertutasunez eta eskuzkoan, orain WhatsApp bidez ere bai!

batu

batu  
 txintxarri  
 kanalera!

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

**Argitaratzailea**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4 (behea)  
 20160 Lasarte-Oria  
 G-20407557

**Administraria**  
 Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
 Nerea Eizagirre Etxeberria,  
 Iñigo Gonzalez Sarobe,  
 Maddi Noriega Zaldua eta  
 Lierni Apaolaza  
 Urdanpilleta.

**Publizitatea**  
 Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
 Gorka Lasa, Lierni Rekondo,  
 Gorka Alvarez, Aizpea  
 Amas, Maitane Rebe, Jexux  
 Artetxe, Oihane Puertas eta  
 Pili Ormazabal.

**Banatazaileak**  
 Nora Navarro, Aimar  
 Hernandez, Gari Iraola,  
 Axier Iraola, Eneko Sanchez  
 eta Udane Guisado.

**Informatika zerbitzuak**  
 IZT Informatika.

**Publizitatea**  
 Tel.: 943-37 14 48 (106)  
 WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943-37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
 Zeroa Multimedia, S.A.  
 Lege Gordailua:  
 SS-513/93  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.  
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | [txintxarri@takun.eus](mailto:txintxarri@takun.eus)

### OSTIRALA 29

#### LASARTE-ORIA

##### • Ospakizuna

LGTBIQ+fobiaren aurkako eguna ospatuko dute Naizen elkarteak eta Lasarte-Oriako Bizipoza Taldeak, jaialdia eginda. Ekitaldi "alaia, goxoa eta irekia" izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Okendo plazan, 18:30ean.

• **Gastronomia** Ekainari ongietorri ederra egiteko asmoz afaria antolatu dute Xirimiri elkarteak kideek. 15 euroren truke menu hau emango dute: natxoak gazta eta guakamolearekin; hanbugesa osoa; eta jogurta granolarekin. Xirimiri elkarteak, 21:00etan.

### LARUNBATA 30

#### LASARTE-ORIA

• **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna

sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etatik aurrera.

#### ZUBIETA

• **Jaia** 50 urte bete dituztela festa handi batekin ospatuko dute Zubieta Lanbide Eskolako ikasle, irakasle, langile, ahaide eta parte hartu nahi duten guztiak. Zubieta Lanbide Eskola, egun osoan zehar.

### IGANDEA 31

#### LASARTE-ORIA

• **Zinema** Haurrentzako saioan *David, una aventura gigante* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

• **Zinema** Helduentzako saioan *Little Amelie* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

### EKAINAK 1-30

#### LASARTE-ORIA

#### • Erakusketa

LGTBIQ+fobiaren aurkako egunaren eta harrotasunaren nazioarteko egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan *Gorputzak* erakusketa irekiko dute. Udal Liburutegia, goizez eta arratsaldean.

### EKAINAK 1

#### LASARTE-ORIA

• **Hitzaldia** Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kide Karlos Etxeberriak *Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren borroka: lorpenak, arriskuak eta etorkizunarekiko begirada* hitzaldia emango du. Borobilean elkarteak antolatutako jarduera da. Oriarte Landaberri institutua, 18:00etan.

### EKAINAK 2

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festak hasiko dira, ekimen hauekin: **18:00etan**, haurren txupinazoa. **18:00etatik 20:00etara**, haurrentzako jolasak, kamiseten serigrafia eta Talentu Bila lehiaketa. **20:00etan**, goxoraketak, buruhandiak eta festetako dantzak.



TXINTXARRI

• **Entsegua** San Pedro Jaietara begira, Sorgin Dantza prestatzen hasiko dira. Okendo plaza, 20:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan bilduko dira. Hurrengo saioak 4an, 9an, 11n, 16an eta 18an egingo dituzte toki eta ordu berean.

### EKAINAK 3

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festetako bigarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **18:00etatik 20:00etara**, haurrentzako jolasak eta eskulanak. **19:00etan**, erraldioen entsegua. **20:00etan**, goxoraketak, buruhandiak eta festetako dantzak.

### EKAINAK 4

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festetako hirugarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **18:00etatik 19:00etara**, apar festa. **19:00etatik 20:30era**, pintxo-potea. **19:30ean**, goxoraketak eta buruhandiak. **19:30ean**, batxata saioa. Ostean, festetako dantzak.

• **Entsegua** San Joan bezperako ospakizuneko soka dantza prestatzeko saioa egingo dute. Erketz EDTko kideek gogorarazi dute animatzen den oro jasoko dutela beso-zabalik.

Garaikoetxea-Landaberri ikastetxea, 19:00etan. Hurrengo entseguak 11n eta 18an egingo dituzte.

### EKAINAK 5

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festetako laugarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **17:30etik 18:15era**, aurpegi margoketa eta txokolate jana. **18:20ean**, goxoraketak. **18:45ean**, Teresa Sorgiñari ongietorria, eta horren barruan: jaietako pregoia (Xumela koruko kide diren eta Zabaletan bizi diren pertsonen egingo diete aitortza), Jalgune elkartearen emanaldia eta Sorgin Dantza herrikoia. **21:00etan**, helduen afari auzotarra. Norberak eraman beharko du jatekoa eta edatekoa. **22:45ean**, Kukuka eskolako kideen Euskal Dantza Sorkuntza emanaldiak.

• **00:00etatik aurrera**, Viafara eta Bele Raven taldeen kontzertuak.

### EKAINAK 6

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festetako bosgarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **09:00etan**, diana. **11:00etan**, brilet partidak. **11:00etatik 12:00etara**, margoketa tailerra eta txokolate jana. **11:00etatik aurrera**, Xumela koruko eta Earra!

#### LASARTE-ORIA Entsegua

San Pedro Jaietan egingo duten Sorgin Dantza prestatzen hasiko dira. Ekainaren 2an, 4an, 9an, 11n, 16an eta 18an egingo dituzte saioak, Okendo plazan, 20:00etatik aurrera. Eguraldi txarra egiten badu Oriarte Landaberri institutuko patioan ariko direla ohartarazi dute.

bertso eskolako kideek kantu jira egingo dute auzoan barrena. **12:00etan**, auzoko adinekoei aitortza. **12:30ean**, sagardo festa. **15:30ean**, Joxe Aranzadiren omenezko XVI. Mus Txapelketa. **17:00etatik aurrera**, LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandien kalejira, dultzaineroekin batera. **17:30etik 20:00etara**, pilota txapelketako finalak. **18:00etan**, kontzertuak, Gure Lasarte Zikiña egitasmo kideen eskutik: Superlore eta Meison taldeek joko dute. **21:00etan**, afari herrikoia. **23:50ean**, LOZET elkartearen zezensuzkoa. **00:00etatik aurrera**, kontzertuak: Auskalo taldea, DJ Fantasia eta DJ Mangel.

### EKAINAK 7

#### LASARTE-ORIA

• **Jaia** Zabaleta auzoko festetako azken egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **09:00etan**, diana. **10:30ean**, patata tortilla txapelketa. **11:00etan**, Kukuka eskolako taldeen emanaldiak. **12:00etan**, herri kirolak. **13:30ean**, proba mistoa. **14:30ean**, herri bazkaria. Ostean, bingo aldrebesa eta emanaldia. **17:30ean**, toka txapelketa. **18:00etatik 20:00etara**, dantza gidatuak Ttipika taldeko kideen eskutik. **20:30ean**, azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra.



TXINTXARRI

#### LASARTE-ORIA Festak

Zabaleta auzoko festak ospatuko dituzte ekainaren 2tik 7ra arte. Lasarte-Oriako Udalarekin lankidetzan osatu dute egitaraua. "Edozein eraso edo indarkeria egoera" pairatzen dutenek 633 34 42 84 telefono zenbakira deitzeko aukera izango dutela jakinarazi dute.

# Osasun gida 2026

## Osasun zentroa



### ZAINQI

| FISIOTERAPIA | ERIZAINZA | DIETETIKA |  
| AKUPUNTURA | TERAPIA NATURALAK |

David Egizabal | Slawomir Sulik

www.zainqi.eus

611 09 20 20 Juan XXIII plaza

## Fisioterapia



### PAGOA

Patricia Gonzalez Belmonte

- Osteopatia
- Masajea
- Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89 📞  
patriciagonzalez.pagoa@gmail.com  
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela  
LASARTE-ORIA

# fisio tera pia



Oihane Labayen Zudaire  
684808484

FISIOTERAPEUTA  
Arreta integrala.  
Zoru pelbikoan eta  
ariketa terapeutikoan  
espezializatua.



Hartu hemen  
zure hitzordua

## Hortz klinikak



### aldaz

hortz klinikak · clínicas dentales

- Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan
- Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak
- Doako urgentziatzko zerbitzua gure pazienteentzat
- Errehabilitazioetan espezialistak
- Odontologia etikoa

Ola kalea, 10. Lasarte-Oria  
943 366 377  
www.dentalaldaz.com

R.P.S. 192924

# PIZARRRO

## HORTZ KLINIKA DENTAL

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA  
ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |  
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA  
PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA



IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA  
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

## Fisioterapia



### ARALAR

FISIOTERAPIA

- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- MUSKULU-ESKELETOAREN EKOGRAFIA
- INDIBA ACTIV
- PILATES TALDE TXIKIETAN
- ESKU TERAPIA

Aralar Plaza 5, behea, LASARTE-ORIA  
(+34) 747 48 50 28  
www.aralarfisioterapia.com

## Fisioterapia



### FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

## Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerria  
20160 Lasarte-Oria

# Osasun gida 2026

*Zure osasuna esku onenetan,  
Lasarte-Orian!*

Hurrengo gida EKAINAREN 19an.  
Parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin  
harremanetan: 943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66